

# ESTRATEGIA- BATZORDEAREN ARAUDIA



## ATARIKO KAPITULUA

### 1. artikulua. Batzordearen izaera

Euskaltel Saren ("Sozietatea") Administrazio Kontseiluak sortua da Estrategia Batzordea ("Batzordea" edo "Estrategia Batzordea"), Sozietatearen Estatutuen 65 bis artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Informazio- eta kontsulta organo bat da, funtzio exekutiborik gabea, eta informatzeko, aholku emateko eta proposamenak egiteko ahalmena du, bere jardueraren eremuan betiere. Sozietatearen Estatutuetan, Administrazio Kontseiluaren Araudian eta Estrategia Batzordearen Araudi honetan ("Araudia") aurreikusitakoaren arabera jardungo da Batzordea.

### 2. artikulua. Araudiaren helburua

Hau da Araudi honen helburua: Batzordearen jarduera-printzipioak zehaztea, bai eta haren antolamendu- eta funtzionamendu-arau oinarritzkoak ere.

### 3. artikulua. Onespena eta aldaketa

1. Administrazio Kontseiluko kideen gehiengo absolutuaren erabakiz onartu behar da Araudia, Kontseiluak, haren presidentek edo kontseilarien heren batek (1/3) hala eskatuta. Onartzen den egun berean sartuko da indarrean Araudia.
2. Batzordeko kideen gehiengo absolutuaren erabakiz onartu behar dira haren aldaketak, Batzordeak, haren presidentek edo Batzordeko kideen heren batek (1/3) hala eskatuta; ondoren, hala badagokio, Administrazio Kontseiluak berretsi behar ditu. Berresten diren egun berean sartuko dira indarrean aldaketak.

## I. KAPITULUA. EREMUA ETA FUNTZIOAK

### 4. artikulua. Eskumen-eremua

Sozietatean eta haren mendeko sozietateetan beteko ditu Batzordeak dagozkion funtzioak.

### 5. artikulua. Batzordearen funtzioak

Batzordearen zeregin nagusia hau da: Administrazio Kontseiluari laguntzea, informazioa ematea eta proposamenak egitea Sozietateko Estatutuek, Administrazio Kontseiluaren Araudiak eta Araudi honek une bakoitzean esleitzen dizkieten gaiei buruz.

Oinarritzko funtzio hauek ditu Estrategia Batzordeak, betiere Administrazio Kontseiluak une bakoitzean esleitzen dizkion egitekoei eta Ikuskaritza eta Kontrol Batzordearen eta Izendapenen eta Ordainketen Batzordearen funtzio eta eskumenei uko egin gabe:

- (i) Sozietatearen negozioa dibertsifikatzeko estrategiak ebaluatzea eta Administrazio Kontseiluari proposatzea, elementu hauek oinarri harturik: sozietatearen jarduerasektorea, aurreikusten zaion eboluzioa, aplikagarria zaion arau-esparrua eta Sozietateak garatzeko eta hazteko dituen baliabideak, ahalmenak eta aukerak.
- (ii) Administrazio Kontseiluari inbertsio berriak egiteko aukeren berri ematea, eta epe luzera Sozietatearen balioa handitzen lagunduko duten aktiboetan inbertitzeko alternatibak formulatzea.

- (iii) Administrazio Kontseiluari aldiro aurkezten zaizkion plan estrategikoetarako gomendioak edo hobekuntzak aztertzea eta proposatzea, kontuan harturik Sozietatearen lehia-posizioa.
- (iv) Urtean behin txosten bat helaraztea Administrazio Kontseiluari, Estrategia Batzordeak aipatutako gaien inguruan egindako proposamen, ebaluazio, azterketa eta lanak jasoko dituen.

## **II. KAPITULUA OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA**

### **6. artikulua. Osaera**

1. Estrategia Batzordeak gutxienez hiru (3) eta gehienez zazpi (7) kanpoko kontseilari (ahaldunak nahiz independenteak) izan behar ditu. Batzordekide gehienek kontseilari independenteak izan behar dute.
2. Muga horiek aintzat harturik, Batzordeak bere kideen kopurua aldatzeko eskaria egin diezaioke Administrazio Kontseiluari, eraginkorragoa izan dadin haren funtzionamendua.

### **7. artikulua. Izendapena**

1. Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu, presidenteak hala proposatuta, Batzordeko kideak, kanpoko kontseilarien artetik.
2. Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu Batzordeko kideak, bete behar dituzten funtzioetarako ezagutzak, gaitasunak eta eskarmentua badituzten begiratu ondoren.

### **8. artikulua. Kargu-banaketa**

1. Batzordeak presidente bat hautatuko du Batzordeko kontseilari independenteen artetik.
2. Halaber, Batzordeak idazkari bat ere izendatuko du: bere kideen arteko bat izan daiteke, edo, bestela, Administrazio Kontseiluko idazkaria edo idazkariordea.

### **9. artikulua. Idazkariaren funtzioak**

Hauek dira idazkariaren eginkizunak:

- (i) Batzordearen dokumentazioa gordetzea; akta-liburuetan jasotzea Batzordearen bileretan esandakoa; batzordeak erabakitakoaren fede ematea, eta zaintzea Batzordearen jardueren legezkontasun formala eta materiala.
- (ii) Batzordearen akten eta erabakien ziurtagiriak egitea. Batzordearen idazkariak idatzi eta sinatu behar ditu ziurtagiriak, edo, bestela, batzordeko kiderik gazteenak, presidentearen edo, bestela, Batzordeko kiderik zaharrenaren oniritziak.
- (iii) Bideratzea eta koordinatzea, Batzordearen presidentearen aginduei jarraikiz, Araudi honetan aipatzen diren gainerako organo, zuzendaritza edo hirugarren batzuekiko harremanak.
- (iv) Araudi honek agintzen dituen gainerakoak, bai eta Sozietatearen Estatutuetan eta Administrazio Kontseiluaren Araudian jasotakoak ere.

## **10. artikulua. Iraupena**

1. Batzordeko kideak lau (4) urterako, gehienez ere, izendatu behar dira, zeinak behin edo gehiagotan berrauta daitezkeen, gehieneko iraupen hori duten epeetarako betiere.
2. Batzordeko presidente-kargua lau (4) urterako da, gehienez ere; epe hori amaitzean, ezingo da berriro hautatu presidente izateko kargu horretan aritu den kontseilaria, harik eta urtebete (1) igaro arte kargua utzi zuenetik, Batzordeko kide izaten jarrai badezake ere.
3. Batzordeko idazkari-kargua lau (4) urterako da, gehienez ere; epe hori amaitzean, behin edo gehiagotan berrauta daiteke idazkaria, gehieneko iraupen hori duten epeetarako betiere

## **11. artikulua. Kargu-uztea**

Kargua utzi egin behar dute Batzordeko kideek baldin eta:

- (i) Sozietateko kontseilari izateari utzi badiote.
- (ii) Kanpoko kontseilari izateari utzi badiote.
- (iii) Administrazio Kontseiluak hala erabaki badu.
- (iv) Kontseilariak uko egin badio Batzordeko kide izateari.

Batzordeko idazkariak utzi egin behar du kargua Administrazio Kontseiluko idazkari edo idazkariorde izateari uzten dionean, baldin eta Administrazio Kontseiluko kide ez den idazkaria edo idazkariordea bada.

## **12. artikulua. Saiok**

1. Batzordea urtean bi (2), hiru (3) edo lau (4) aldiz elkartuko da, bere eskumenekoak diren gaien egoeraren ohiko berrikuspena eta ebaluazioa egiteko, bai eta presidenteak edo Batzordeko kideen herenak (1/3) organo horren funtzioak behar bezala garatzeko egoki irizten diotelako deitzen duten bakoitzean ere.
2. Lehendakariak Batzordearen bilerarako deialdia egingo du Administrazio Kontseiluak edo Administrazio Kontseiluko presidenteak txosten bat egiteko edo proposamenak aurkezteko gauzatzeko eskatzen badute, edo Batzordeko kideen herenek eskatzen badute.

## **13. artikulua. Deialdia**

1. Batzordearen bilera-deialdiak gutun, fax, telegrama edo posta elektronikoko bidez egin behar ditu presidenteak, edo, haren aginduz, idazkariak.
2. Bost (5) egun baliodun lehenago, gutxienez, egin behar dira deialdiak, bilera urgenteetarakoak izan ezik. Deialdiarekin batera, bileraren gai-zerrenda ere bidali behar da beti, bai eta informazio garrantzitsuena ere, behar bezala laburtua eta prestatua.
3. Ez dago Batzordearen bilera-deialdirik egin beharrik kasu honetan: batzordekide guztiak bertaratu badira eta aho batez onartzen badute bilera egitea.
4. Ohiz kanpoko bilera-deialdiez eta bozketak idatziz eta bilerarik gabe egiteko aukeraz Sozietatearen Estatutuek aurreikusten dutena aplikatu behar da Batzordearen bileretan.

#### **14. artikulua. Eraketa**

1. Enpresaren egoitzan edo deialdian adierazten den lekuan bildu behar du Batzordeak.
2. Batzordearen eraketa baliozkoa izan dadin, haren kideen erdiek baino gehiagok egon behar dute bileran (kideak eurak edo haien ordezkariak). Batzordea eratu ondoren izaten diren absentziek ez diote baliozkotasunik kentzen haren bilerari.
3. Bideokonferentziaz edo telefono bidezko multikonferentziaz ere egin daitezke Batzordearen bilerak, eta joko da deialdian leku nagusitzat ageri den hartan izan dela Batzordearen saioa. Horri buruzko xehetasunik eman ezean, joko da bileraren buru zen kontseilaria zegoen lekuan egin zela saioa.
4. Eskubidea dute Batzordeko kide guztiek beste batzordekide baten esku uzteko, idatziz, beren ordezkariak. Bilera bakoitzerako berariazkoa behar du izan lagapen horrek, zeinaren berri Batzordearen presidenteari edo idazkariari eman behar baitzaio, aurreko artikuluko lehen atalean deskribatutako baliabideetako edozein erabiliz.
5. Presidenteak zuzendu behar ditu Batzordeko eztabaidak, bai eta hitza eman eta eztabaidak amaiarazi ere gairen bat nahikoa jorratu dela baderitzo. Eskua altxatuta egin behar dira bozketak.
6. Presidenterik ez badago, gaixorik badago edo, joaterik izan ez badu, Batzordean antzinatasun handiena duen kideak izan behar du bileraren buru; antzinatasun bera badute, batzordekide zaharrenak. Idazkaririk ez badago, gaixorik badago edo joaterik izan ez badu, Batzordean antzinatasun txikiena duen kideak izan behar du idazkari; antzinatasun bera badute, batzordekide gazteenak.

#### **15. artikulua. Erabakiak**

1. Bilerara joan direnen gehiengo absolutuz hartu behar dira erabakiak. Berdinketarik gertatuz gero, Presidenteak kalitateko botoa izango du.
2. Aktan jaso behar dira Batzordearen eztabaidak eta erabakiak. Presidenteak eta idazkariak, edo haien ordezkariak, sinatu behar dute akta. Bileraren amaieran, edo hurrengoaren hasieran, onartu behar ditu aktak Batzordeak.

#### **16. artikulua. Interes-gatazka**

Batzordean jorratu behar diren gaiek zuzenean eragiten badiote batzordekideren bati edo harekin lotura duten batzuei eta, oro har, batzordekide horrek interes-gatazkaren bat baldin badu, atera egin behar du bileratik erabakia hartu arte, eta bertaratutakoen kopurutik kenduko da, puntu horri dagokionez, quoruma eta gehiengoa zehazteko.

#### **17. artikulua. Bertaratzea**

1. Batzordearen presidenteak edo bi (2) batzordekidek, edozeinek, eskatuz gero, Administrazio Kontseiluko edozein kide, Sozietateko zuzendari edo langile joan daiteke bilerara, bai eta partaidetzako sozietateetako administrazio-organoetako edozein kide ere, betiere Sozietateak proposatu bazuen haren izendapena eta ez baldin badago horretarako lege-eragozpenik.
2. Batzordeak noiznahi eska dezake kanpoko auditorea bileretara joatea.

### III. KAPITULUA ESTRATEGIA-BATZORDEAREN HARREMANAK

#### 18. artikulua. Akziodunen Batzar Orokorrarekiko harremanak

1. Batzordeak informazioa eman behar dio Akziodunen Batzar Orokorrari beraren eskumeneko gaiei buruz akziodunek galderarik aurkezten badute.
2. Aurreko paragrafoan adierazitakoa garatuz, Batzordearen jardueri buruzko txostena egin behar du, urtero, Batzordeak, eta akziodunei banatu, Administrazio Kontseiluak onartu ondoren, Akziodunen Ohiko Batzar Orokorra egiten denean.

#### 19. artikulua. Administrazio Kontseiluarekiko harremanak

1. Batzordearen presidentek haren jardueraren berri eman behar dio Administrazio Kontseiluari, Batzordearen bilera bakoitzaren ondoren Administrazio Kontseiluak egiten duen lehen bileran.
2. Edozein kontseilarik eska dezake, Administrazio Kontseiluko idazkariaren bidez, bere funtzioak betetzeko Batzordeak duen edozein informazio edo dokumentazio eskuratzeko baimena.

#### 20. artikulua. Sozietatearen eta haren taldearen zuzendaritzarekiko harremanak

1. Batzordeak, bere presidentearen bidez, informazioa eta laguntza eska diezaioke Sozietateko eta haren taldeko edozein zuzendariri zein langileri. Horretarako, Batzordearen bileretara joan behar dute Sozietateko zuzendariak edo langileak, eta, eskatzen zaienean, Batzordeari lagundu eta eskatzen zaien informazioa haren eskura jarri.
2. Nolanahi dela ere, Batzordeko presidentek Batzordean parte hartzeko baldintzen berri eman behar die Administrazio Kontseiluko presidenteari eta Sozietatearen zuzendari nagusiarri, balego.

### IV. KAPITULUA BATZORDEAREN ESKUMENAK, AHOLKULARITZA ETA BATZORDEKIDEEN BETEBEHARRAK

#### 21. artikulua. Eskumenak

Batzordeak, Administrazio Kontseiluko idazkariaren bidez, eskubidea du Batzordearen eskumeneko gaiei buruz Sozietateak daukan informazioa edo dokumentazioa eskuratzeko, baldin eta bere eginkizunetarako behar duela baderitzo.

#### 22. artikulua. Aholkularitza

1. Lege-ahokulariak, kontulariak, finantzariak eta beste aditu batzuk kontratatzeko eska dezake Batzordeak, Sozietatearen kontura, bere eginkizunetan lagundu diezaioten.
2. Eskaerak, nahitaez, eginkizunen batean sortzen diren arazo jakin, garrantzitsu eta konplexuei buruzkoa izan behar du.
3. Sozietatearen Administrazio kontseiluko presidenteari egin behar zaio laguntza-eskaria. Uko egin diezaioke presidentek laguntza emateari, baldin eta:
  - (i) Batzordeari esleitutako funtzioak behar bezala betetzeko beharrezkoa ez dela baderitzo;

- (ii) kostua ez dela arrazoizkoa baderitzo, arazoaren garrantzia eta Sozietatearen diru-sarrerak eta aktiboak kontuan harturik;
- (iii) eskatzen den laguntza teknikoa Sozietateko adituek eta teknikariek egokiro eman dezaketela baderitzo, edo
- (iv) maneiatu behar den informazioaren konfidentzialtasuna arriskuan jar dezakeela uste badu.

### **23. artikulua. Batzordeko kideen betebeharrak**

1. Iritzia emateko eta jarduteko independentzia izan behar dute Batzordeko kideek enpresako gainerako kideekiko, eta ahalik eta prestasun eta gaitasun profesional onenaz egin beren lana.
2. Administrazio Kontseiluko Araudian kontseilari entzat aurreikusten diren betebeharrak guztiak dagozkie Batzordeko kideei, batzordekide izateagatik, Batzordearen jardueretarako aplikagarriak diren heinean.

## **V. KAPITULUA. BETEARAZPENEA, HEDAPENA ETA INTERPRETAZIOA**

### **24. artikulua. Betejarazpena eta hedapena**

1. Araudi hau ezagutu eta bete egin behar dute Batzordeko kideek, bai eta, dagokien arloan, Administrazio Kontseiluko gainerako kideek ere.
2. Araudi honen ale bana eman behar die Administrazio Kontseiluko idazkariak kontseilari guztiei.
3. Horrez gain, Araudia betejarazi egin behar du Batzordeak, eta enpresa osora hedatzeko behar diren neurriak hartu.

### **25. artikulua. Interpretazioa**

1. Une bakoitzean indarrean diren eta aplikagarri zaizkion lege-arauen, Sozietatearen Estatutuen eta Administrazio Kontseiluaren Araudiaren arabera interpretatu behar da Araudia, eta erakunde arautzaileen ekimenez gobernamendu egokirako eskaintzen diren printzipio eta gomendioen arabera.
2. Zalantzarik edo desadostasunik sortzen bada Araudi honen interpretazioa dela eta, Batzordean bertan ebatzi behar da, gehiengoz; bestela, presidentek ebatziko du, Administrazio Kontseiluak, hala badagokio, horretarako izendatzen dituen pertsonen laguntzaz. Administrazio Kontseiluari jakinarazi behar zaio zalantza edo desadostasunen interpretazioaren eta ebazpenaren berri.
3. Berariazko araurik ezean, Administrazio Kontseiluko Araudiaren Batzordearen funtzionamenduari buruzko xedapenak aplikatu behar zaizkio Batzordeari, baldin eta haren izaerarekin bateraezinak ez badira, gai hau dagokienez batik bat: bilera-deialdiak, beste kontseilari bati ordezkari lagatzea; eraketa, deialdirik gabeko bilerak, nola egin bilerak eta nola hartu erabakiak, idatzizko eta bilerarik gabeko bozketak, eta bileretako akten onespina.
4. Legeak, Sozietatearen Estatutuek eta Administrazio Kontseiluaren Araudiak izango dute lehentasuna Araudiak agintzen duenarekin bat ez badatoz.

## **26. artikulua. Epe-neurketa**

Araudi honen xedeetarako, balioduntzat joko dira urte naturaleko egun guztiak, hauek izan ezik: larunbatak, igandeak eta Bilboko jaiegun guztiak.